



2019ko RYC deialdia

JARRAIBIDEAK UPV/EHUKO IKERTALDEEK ADIERAZPEN INTERESGARRIAK AURKEZ DITZATEN

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen ministerioak (aurrerantzean MCIU) argitara eman du laguntzen deialdia, I+G erakundeek jakintza arlo guztietako doktoreei 5 urtetako lan kontratuak egin diezazkieten, alegia "Ramón y Cajal azpiprograma" (aurrerantzean "RyC").

Deialdiari buruzko informazio orokorra

"RyC" deialdiak eskatzen du bi tramite aldi berean egitea, baina beren artean independenteak direnak:

- a. Hautagaiak kontratua lortzeko eskariak aurkeztu behar dituzte.
- b. UPV/EHUK moduan, I+G erakundeek eskaria aurkeztu behar dute, eskaintzen dituzten plazen zerrendarekin batera.

Ikerketaren arloko errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) eskaria aurkeztuko du, I+G erakundea baita, eskaintzen dituen plazak zerrendatuz. Eskaintza hori egiteko, ikertaldeek aurkeztutako ikerketa gaien proposamenak hartuko dira oinarri, aurrerago zehaztuko diren prozedura eta irizpideekin bat etorrira.

UPV/EHUK deialdian proposatuko dituen ikerketa gaien kopurua euskal gobernuak baimendu behar du; izan ere, UPV/EHUK deialdian parte hartzeak berariaz baitakar ikertzaile doktore iraunkorraren plaza bat sortu eta, gerora, berori betetzeko deialdia egiteko konpromisoa, bana plaza gure unibertsitatean RyC gisako ikertzaile moduan kontratuko den pertsona bakoitzeko. Plaza horiek sortzeko, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak jarritako finantzaketa.

IAEn jasotako ikerketa gaien proposamenak UPV/EHUKen Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) aztertuko ditu eta, horien guztien artean, Ikerketaren arloko errektoreordeak hala proposatuta, UPV/EHUK aurkeztuko dituen plazak hautatuko dira, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza sailak alde aurretik baimendu dituela.

Interes adierazpenek bete beharreko baldintzak

Interes adierazpenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. Proposatzaileak ikertalde aktibo bateko kideak izan beharko dira. Ikertalde aktiboak dira halakotzat aitortuak izan direnak Eusko Jaurlaritzaren deialdietan (laguntza jaso ala ez) edo UPV/EHUKen deialdietan.
- b. Ikertalde bakoitzak «interes adierazpen» bat besterik ezin izango du proposatu deialdi honetan.
- c. **Interes adierazpen bakoitzean hautagai bakar baten proposamena besterik ezin izango da egin.**
- d. RyC ikertzailea hartuko duen sail edo institutuko arduradunak ontzat jo beharko du.

Interes adierazpenak hautatzeko irizpideak

Baimendutako plaza kopurua IGBBren bost arloen artean zatituko da eta arlo bakoitzean hautatuko, zenbaki osoaz, zatiketa honen emaitzaren besteko ikerketa gai. Arlo bakoitzaren barruan honetara hautatuko dira ikerketa gaien proposamenak:

- 1. irizpidea: hautagai lehiakor bat izango duten ikerketa gaien proposamenak hautatuko dira.



- 2. irizpidea. Hautagai lehiakorrik duten ikerketa gai bat baino gehiago baleude, hautatutako dira CV hobeak dituzten hautagaiak dituzten ikerketa gaiak, arlo bakoitzeko IGBBko ordezkarien iritzia aintzat hartuta.
- 3. irizpidea: Hautagai lehiakorri duen ikerketa gairik ezean, hautatu egingo da RyC gutxien edo duela denbora gehien izandako sailari dagokion ikerketa gaia.

Gainerako plazak adjudikatzeko, bana hautatuko da arlo bakoitzeko, lehenago adierazitako irizpideekin bat etorrira eta, irizpide horien arabera, kasuan kasu legokiokeena hautatuz.

Eskaerak aurkezteko epea:

Interes adierazpenak **2019ko abenduaren 30eko 8:00ak baino lehen** bidali behar dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzara (pre-postdoc.dgi@ehu.eus), mezuaeren gaian "RyC deialdia" jarrita. Ez da dokumentazio gehiagorik bidali behar barne postaz edo erregistroaren bidez.

IGBBk ez du interes adierazpenik aztertuko, epe hau amaitu eta gero bidali bada.

Dokumentazioa:

Ikerketa gaien proposamenak aurkezteko, IAEn web gunean eskura daitekeen eredia baliatu beharko da (Word eta PDF formatuetan), honekin batera eta halakorik balego, hautagaien curriculum vitae (PDF formatuan).

Izapidetzea:

Behin IGBBk ikerketa gaien proposamenen hautaketa onetsita, IAEk emaitza jakinaraziko die proposatzaileei posta elektronikoen bidez.

Deialdiak aurrera egin ahala, bada fase bat non MCIUk hautatutakoen zerrenda argitaratuko duen, hain zuzen ere, pertsona hauek RyC ikertzaile gisa jarduteko tokia hauta dezaten.

Fase honetan, hiru egoera ezberdin gerta daitezke:

- A. MCIUren ebazpenean pertsona bat agertuko da ikerketa gaien proposamenari lotuta, deialdian aurkeztu eta IGBBk hautatuta. Honelakoetan, UPV/EHU harremanetan jarriko da berarekin, deialdian agertu bezala, jarduteko konpromisoa formalizatzearen.
- B. MCIUren ebazpenean pertsona bat agertuko da ikerketa gaien proposamenari lotuta, UPV/EHUK deialdian aurkeztu ez eta IGBBk hautatu ez duena.

Kasu honetan, deialdira aurkeztutako ikerketa gaien proposamenei loturiko pertsonarik balego, ez da hautatu; hau da, ikerketa gaien proposamen bat "hutsik" geratu da. UPV/EHUK eskatu ahal dio MCIUri hutsik geratu den proposamena kendu eta hautatutako pertsonari lotutakoa jartzeko eta, ondoren, UPV/EHUK hautagaiarekin harremanetan jarri eta deialdian ezarritako jarduteko konpromisoa formalizatuko dute.

- C. MCIUren ebazpenean, bada pertsona bat IAEk aurkeztutako ikerketa gaien inongo proposamenei loturikoa eta, IGBBk aztertuta, harremanetan jarri da UPV/EHUKo ikertzaile batekin, deialdian agertu bezala, UPV/EHUn has dadila adierazteko.

Kasu honetan, deialdian ikerketa gaien proposamenei loturiko pertsonarik ez da hautatu, hau da, ikerketa gaien proposamen bat "hutsik" geratu da eta, saileko zuzendariaren adostasuna aurretik dela, UPV/EHU harremanetan jarriko da berarekin, deialdian agertu bezala, jarduteko konpromisoa formalizatzeko.

MCIUren ebazpenean hautatutako pertsonen kontratazioa honako lehentasun honi jarraituko zaio: lehenengo, A egoeran diren pertsonak; gero, B egoeran direnak eta, azkenik, C egoeran direnak.

UPV/EHUKo kontaktua:

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE INVESTIGACIÓN

Erabiltzailea eroso egon dadin eta zerbitzu hobea eskaintzearen, gomendagarria da kontsultak ("RyC deialdia" aipatuz posta elektronikoaz igortzea pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora eta ahal denik eta lasterren erantzungo dira.